

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2025eko abuztua

2025eko abuztuan Euskal AEko landetxeetan igarotako ostatu-gauak % 3,1 igo dira, % 6,0 apartamentu turistikoetan eta % 18,4 aterpetxe turistikoetan

Gelen arabera okupazio-maila % 72,3koa izan da landetxeetan eta % 83,4koa apartamentu turistikoetan. aterpetxe turistikoek % 70,6ko okupazio-maila dute plazen arabera

2025eko abuztuan, Euskal AEko **landetxeetan** sarreraren kopurua % 0,1 murriztu da eta ostatu-gauena % 3,1 handitu da, aurreko urteko hil beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Urte batetik bestera izandako aldaketa horiekin, sarrera kopurua 25.454koa izatera iritsi da abuztuan, eta ostatu-gauen kopurua 97.553 izan da guztira.

Euskal AEko landa-ostatuuetako sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Abuztua 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025/08	m/m-12 (%)	2025/08	m/m-12 (%)	2025/08	2024/08	2025/08	p.p. *	2025/08	p.p. *
EUSKAL AE	25.454	-0,1	97.553	3,1	3,83	3,72	67,1	2,7	72,3	2,2
Estatukoak	18.024	-3,9	72.801	-0,4	4,04	3,90	-	-	-	-
Atzerritarrak	7.430	10,6	24.752	14,9	3,33	3,20	-	-	-	-
Araba/Álava	5.222	16,0	17.727	29,7	3,39	3,04	54,8	14,1	60,6	13,4
Estatukoak	3.922	13,5	14.035	35,8	3,58	2,99	-	-	-	-
Atzerritarrak	1.300	24,3	3.692	10,7	2,84	3,19	-	-	-	-
Bizkaia	7.930	1,1	29.349	-1,3	3,70	3,79	69,4	0,4	73,6	-2,2
Estatukoak	5.589	-2,7	22.512	0,6	4,03	3,89	-	-	-	-
Atzerritarrak	2.341	11,7	6.837	-7,3	2,92	3,52	-	-	-	-
Gipuzkoa	12.302	-6,3	50.477	-1,5	4,10	3,90	71,4	-1,7	76,9	-0,3
Estatukoak	8.513	-10,9	36.254	-10,3	4,26	4,23	-	-	-	-
Atzerritarrak	3.789	5,9	14.223	31,4	3,75	3,02	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Irailaren 24a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko abuztuarekin alderatuta % 10,6 hazi ondoren, atzerriko bisitarien sarrerak Euskal AEko landetxeetan izandako sarrera guztien % 29,2 izan dira. Ostatu-gauen kasuan, bestalde, atzerritar jatorrikoenak guztizkoaren % 25,4 izan dira, 2024ko abuztuaren aldean % 14,9 handitu ondoren.

Lurralde historikoen arabera, 2025eko abuztuan sarrerak % 16,0 igo dira Araban eta % 1,1 Bizkaian; Gipuzkoan, berriz, % 6,3 jaitsi dira. Ostatu-gauei dagokienez, Araban % 29,7 igo dira; Gipuzkoan, berriz, % 1,5 jaitsi dira eta Bizkaian % 1,3.

Euskal AEn mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia¹ 3,83 egunekoa izan da abuztuan, 2024ko abuztuan izandako 3,72 eguneko batez besteko egonaldia baino zertxobait luzeagoa.

Plazen eta logelen arabera okupazio-mailek urte batetik bestera ehuneko 2,7 eta 2,2 puntu egin dute gora, hurrenez hurren; plazen arabera neurtuta % 67,1ean kokatuz eta logelen arabera neurtuta % 72,3an.

Apartamentu turistiko² dagokienez, 2025eko abuztuan 36.532 sarrera izan dira; horren ondorioz, 102.504 ostatu-gau erregistratu dira. Aurreko urteko abuztuan erregistratutako datuekin alderatuz gero, % 15,6 igo dira sarrerek eta % 6,0 ostatu-gauak.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerek, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Abuztua 2025

	Sarrerek		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamendua	
	2025/08	m/m-12 (%)	2025/08	m/m-12 (%)	2025/08	2024/08	2025/08	p.p. *	2025/08	p.p. *
EUSKAL AE	36.532	15,6	102.504	6,0	2,81	3,06	54,4	-5,1	83,4	4,8
Estatukoak	17.935	7,6	55.016	0,5	3,07	3,28	-	-	-	-
Atzerriarrak	18.597	24,7	47.487	13,1	2,55	2,81	-	-	-	-
Araba/Álava	1.324	-5,6	11.819	5,0	8,93	8,02	33,7	-1,7	74,6	-11,2
Estatukoak	1.006	-4,9	8.189	-4,0	8,14	8,07	-	-	-	-
Atzerriarrak	318	-7,7	3.631	33,5	11,41	7,89	-	-	-	-
Bizkaia	23.369	17,0	52.976	6,9	2,27	2,48	57,4	-11,3	85,3	10,7
Estatukoak	10.994	7,4	26.491	0,7	2,41	2,57	-	-	-	-
Atzerriarrak	12.375	27,1	26.485	13,9	2,14	2,39	-	-	-	-
Gipuzkoa	11.839	15,9	37.708	5,1	3,19	3,51	61,8	0,4	84,5	4,5
Estatukoak	5.935	10,3	20.336	2,3	3,43	3,69	-	-	-	-
Atzerriarrak	5.904	22,1	17.371	8,6	2,94	3,31	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Irailaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetan izandako sarrera guztien % 50,9 eta ostatu-gau guztien % 46,3 atzerriko jatorriko bisitariei dagozkie, 2025eko abuztuan urte batetik bestera % 24,7ko eta % 13,1eko igoerak erregistratu ondoren, hurrenez hurren.

Euskal AE osoko apartamentu turistikoetan batez besteko egonaldia 2,81 egunekoa izan da 2025eko abuztuan, 2024ko abuztuan erregistratu zen 3,06 egunekoaren azpitik. Mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia 8,93 egunekoa izan da Araban, 3,19 egunekoa Gipuzkoan eta 2,27 egunekoa Bizkaian.

¹ Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari.

² Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten ardurapean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitzak partikularrak.

Plazen okupazio-maila % 54,4koa izan da Euskal AEn, 2024ko abuztuarekin alderatuta ehuneko 5,1 puntu galdu ondoren. Apartamentuen okupazio-mailak ehuneko 4,8 puntu egin du gora, eta % 83,4n kokatu da.

2025eko abuztuan, Euskal Autonomia Erkidegoko **aterpetxe turistikoek** urte batetik bestera % 12,2ko igoera izan dute sarreretan; guztira 43.878 sarrera izan dira eta 78.549 ostatu-gau. Bizkaian 44.464 ostatu-gau erregistratu dira, Gipuzkoan 30.433 eta, azkenik, Araban 3.652.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Abuztua 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/08	m/m-12 (%)	2025/08	m/m-12 (%)	2025/08	2024/08	2025/08	p.p.
EUSKAL AE	43.878	12,2	78.549	18,4	1,79	1,70	70,6	9,3
Estatukoak	15.991	11,2	32.643	35,0	2,04	1,68	-	-
Atzerriarrak	27.887	12,8	45.907	8,9	1,65	1,70	-	-
Araba/Álava	2.101	225,2	3.652	191,5	1,74	1,94	68,9	43,8
Estatukoak	1.386	123,1	2.724	122,9	1,97	1,97	-	-
Atzerriarrak	715	2.762,1	928	2.958,4	1,30	1,21	-	-
Bizkaia	23.659	0,3	44.464	11,0	1,88	1,70	77,1	5,9
Estatukoak	9.152	0,9	19.479	37,5	2,13	1,56	-	-
Atzerriarrak	14.507	-0,0	24.985	-3,6	1,72	1,79	-	-
Gipuzkoa	18.118	21,8	30.433	21,7	1,68	1,68	63,0	9,8
Estatukoak	5.453	16,3	10.439	18,6	1,91	1,88	-	-
Atzerriarrak	12.665	24,4	19.993	23,4	1,58	1,59	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Irailaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Ostatu mota horretako egonaldien batez besteko iraupena, 1,79 egunekoa izan da Euskal AE osoan, eta plazen okupazio-maila, urte batetik bestera ehuneko 9,3 puntu igo ondoren, % 70,6ra iritsi da.

Datu metatuak (2025eko urtarrila-abuztua)

2025ean, orain arte, Euskal AEko **landetxeetan** 124.539 sarrera erregistratu dira eta 341.462 ostatu-gau; 2024ko aldi berean bildutako datuak baino % 4,0 eta % 5,2 gainetik. Batez besteko egonaldia 2,74 egunekoa izan da, hau da, aurreko urteko 2,71ren oso antzekoa. Okupazio-mailari dagokionez, plazen arabera neurtuta, % 34,4ra iritsi da, 2024ko aldi metatu berean % 32,1era iritsi zen bitartean. Gelaka neurtuz gero, okupazio-maila 2024an erregistratu zen % 36,7tik gorakoa da, 2025eko lehen zortzi hilabete hauetan % 39,4koa izatera helduz.

Apartamentu turistikoei dagokienez, abuztura arte metatutako aldian 193.816 sarrera izan dira, eta 563.975 ostatu-gau; horrek esan nahi du % 32,3ko igoera izan dela sarreretan, eta % 16,3koa ostatu-gauetan, 2024ko aldi beraren aldean. Batez besteko egonaldia 2,91 egunekoa izan zen 2025eko lehen zortzi hilabeteetan, 2024ko aldi berean 3,31 egunekoa izan zen bitartean. Plazen arabera okupazio-maila % 40,9koa izan da, 2024ko aldi berean erregistratutako % 41,2ren ehuneko 0,3 puntu azpitik. Apartamentuen arabera okupazio-maila % 71,3koa izan da, 2024ko aldi baliokidean erregistratutakoa baino ehuneko 5,5 puntu gainetik.

Aterpetxe turistikoei dagokienez, 2025ean 186.364 sarrera eta 337.567 ostatu-gau izan dira, % 2,6 gehiago sarreraren kasuan eta % 0,6 gehiago ostatu-gauen kasuan, 2024ko hilabete berberekin alderatuta. Batez besteko egonaldia 1,81 egunekoa izan da, hots aurreko urteko 1,85 egunen azpitik. Plazen araberrako okupazio-maila, azkenik, % 42,0koa izan da, 2024ko aldi berean erregistratutakoa baino % 0,4 puntu azpitik.

Informazio-oharra

ETHren inguruan emandako erantzun-tasa hilabete honetan % **94,1**koa izan da landetxetan, % **83,3**koa apartamentu turistikoeetan eta % **86,6**koa aterpetxe turistikoeetan. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62